



Maiden Irujo EGikidearen hitzaldia

Aquí estoy porque he venido. Horrela hasiko zen nire senidea zen Manuel Irujo nafartarra gaur hemen egongo balitz. Aberri Egun honetan, hemen gaude berriro ere, gure herriaren aldeko konpromisoa berresteko, gure arbasoen memoria ohoratzeko eta etorkizun hobeko baten alde lan egiteko.

Denborak aurrera egin du, belaunaldiak aldatu dira, baina kateak ez du etenik izan. Ez gara kasualitatez hemen. Bide luzea egin dugu, eta harrotasunez esan dezaket, nire kasuan eta hainbat familien kasuan, bost belaunaldi igaro ondoren, hemen jarraitzen dugula, tinko, gure herriarekiko maitasuna eta konpromisoa belaunaldiz belaunaldi transmitituz. Isilean askotan, baina irmotasunez beti. Herri honen alde lan egin dutenen ondarea gara, ordainean ezer espero gabe, gau eta egun lan eginez, gaur egun zaindu eta maitatzen dugun herri hau lortzeko.

Bost belaunaldi horiek errealitate oso ezberdinak bizi izan dituzte. Gure alderdia sortu zutenek herri baten kontzientzia piztu zuten. Gero etorri ziren mundu gerrak, gerra zibilaren zauri sakonak, erbesteak, debekuak eta terrorismoaren garai ilunak. Aberri Eguna bera ere debekatua izan zen urte luzez, baina hala ere ospatzen jarraitu zen, askatasunaren sinbolo gisa. Horrek guztiak erakusten digu herri bat ez dela desagertzen, herri bat den bitartean. Herri honek aurrera egin du, ez mendekutik, baizik eta elkarbizitzatik; ez hausturatik, baizik eta eraikuntzatik. Beti aurrera egin dugu, gure herriaren aldeko itxaropenari eutsiz.

Gaur egun, beste erronka batzuen aurrean gaude. Etxebizitza duina izatea, hezkuntza sendoa bermatzea, migrazioa gizatasunez kudeatzea, mundu nahasi batean gure lekua defendatzea, eta gure historia guk kontatzea.

Azkenaldian, gero eta gehiago entzuten dugu "ez zait politika interesatzen" esaldia. Politikaz desinteresatzeak ez du desagerrarazten, ezta hobetzen ere; besterik gabe, espazio librea uzten die besteei gure ordeztan erabaki dezaten. Apatiak eta utzikeriak sistema demokratikoaren pobretzea dakar, eta horrek ondorio larriak ditu: ordezkartzan aniztasun gutxiago, populismo gehiago eta muturrek zein zaratak menderatutako espazio publikoa.

Horregatik, Euzko Gaztedi gisa, gure erantzukizuna are handiagoa da. Euzko Gaztedi mugimendu politiko gazte, abertzale, euskaldun, independentista eta humanista da. Gure aberria Euzkadi da eta gure helburu nagusia Euskadiren nazio eta gizarte askapena lortzea da.

ABERRIA BIZI



Aberri Eguna 2026
Apirilak 5. Bilbao. Plaza Barria. 11:30



Agian gaur egun politikan sartzea ez da erraza. Baina guk Aberri honetan sinisten dugu eta Alderdi honetan sinisten dugu gure herria askatzeko.

Baina, zergatik Euzko Gaztedi? Zergatik Euzko Alderdi Jeltzalea? Erantzuna sinplea da, baina indartsua: hemen badagoelako etorkizuna eraikitzeko borondatea. Hemen badagoelako herri honetan sinesten duen jendea. Hemen badagoelako euskara bizirik nahi duen gazteria. Eta hemen badagoelako prest dagoen jendea, hitzetatik ekintzetara pasatzeko. Hemen ikasi dugu herri bat ez dela ideologia hutsa. Herri bat komunitatea dela. Eta komunitate horrek aurrera egin nahi badu, konpromisoa, lana eta batasuna behar du. Langileak gara, bai, baina ondo pasatzeko grina ere badugu, eta badakigu Herri baten indarra daukagula atzetik gure ametsak errealitate bihurtzeko.

Beraz, ez dezagun esan gehiago "ez zait politika interesatzen". Horren ordez, esan dezagun: "Politika hobea izatea nahi dut, eta horretan lagundu nahi dut". Horretarako, konpromisoa behar da, informazioa, errespetuzko eztabaida, gardentasuna eta gure komunitateetan parte hartzea. Politika ez da soilik politikoena, herritarrena baizik, eta gurea, gazteona. Demokraziak ez dira kanpoko erasoengatik bakarrik hiltzen, baita bertan sinesteari uzten diotenen axolagabekeriagatik ere. Demokrazia ez baita ikusleentzako ikuskizun bat, erantzukizun partekatu bat baizik.

Gure Alderdia herri honen motorra da, eta gu, gazteok, motor horren erregaia gara. Jarrai dezagun gure herriaren alde lan egiten, gure balioak defendatzen eta etorkizun aske, oparo eta arimadun baten alde borrokatzen.

Gora Euzko Gaztedi!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!